| **2. zenbakia gutun-azala "Formulen bidez kuantifikagarriak ez diren irizpideekin lotutako dokumentazioa".** | ***Sobre número 2 "Documentación relativa a criterios no cuantificables mediante fórmulas".*** |
| Lizitatzaileak gutun-azal honetan aurkezteko beharreko dokumentazioa balio-judizioen mendeko agiri honetako esleipen-irizpideak balioetsi eta neurtuko da. | *Incluirá toda la documentación que aporte el licitador para que se valore y puntúen los criterios de adjudicación recogidos en el presente pliego que dependen de un juicio de valor.* |
| Zehazki, honako dokumentu hauek bildu beharko ditu: | *En concreto, deberá contener los siguientes documentos:* |
| 1. Hezkuntza Kudeaketaren Proiektua. Esleipen-irizpideetan zehazten diren alderdi guztiak bilduko ditu (13. klausula).<br>2.Eskaintzaren gizarte-alderdiak:<br>Atal honetan, agiri honetan ezarritakoaren arabera eskaintzan gizarte-irizpidetzat jotzen ahal diren alderdiak xehatuko dira. Zehazki, honako hauek aipatuko dira: | *1.Proyecto de Gestión Educativa. Incluirá los diversos aspectos que se detallan en los criterios de adjudicación (cláusula nº 13).*<br>*2.Aspectos sociales de la oferta:*<br>*En este apartado se detallarán los aspectos de la oferta que puedan ser valorados atendiendo a lo dispuesto en el presente pliego como criterios sociales y. En concreto, se aludirá a los siguientes extremos:* |
| -Hala badagokio, konpromisoa hartuko da gutxienez 8 orduz kontratua beteko duten langileak sentsibilizatzeko eta prestatzeko ekintzak egiteko, berdintasun eta kontziliazioaren arloko eskubideei buruz (indarrean dagoen araudian eta dagokion hitzarmenean onartuak). | *-En su caso, compromiso de realización de, al menos, 8,00 horas de acciones de sensibilización y formación a la plantilla que ejecutará el contrato acerca de los derechos en materia de igualdad y conciliación reconocidos en la normativa vigente y convenio correspondiente.* |
| Gutun-azal honetan ezin izanen da eskaintza ekonomikoari edo formulen bidez kuantifikagarriak diren irizpideei buruzko erreferentziarik egin. | *No se podrá incluir en este sobre referencia alguna de la oferta económica o criterios cuantificables mediante fórmulas.* |
| **3. zenbakia gutun-azala "Formulen** | ***Sobre número 3. "Documentación*** |

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| **bidez kuantifikagarriak diren irizpideekin lotutako dokumentazioa".** | ***relativa a criterios cuantificables mediante fórmulas".*** |
| Gutun-azal horretan, lizitatzaileak eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez kuantifikagarriak diren irizpideekin lotutakoa aurkeztuko ditu. Zehazki, eskaintza ekonomikoaz gain, balioetsiko da esleipen-prezioaren zer ehuneko azpikontratatuko den Enplegurako Zentro Bereziekin eta/edo Laneratze Enpresekin. | *En este sobre se incluirá por el licitador la oferta económica y la relativa a los criterios cuantificables mediante fórmulas En concreto, además de la oferta económica se valorará también el porcentaje respecto del precio de adjudicación que se subcontratará con Centros Especiales de Empleo y/o Empresas de Inserción.* |
| Proposamena bat etorriko da III. Eranskinean ageri den ereduarekin. | *La propuesta se hará de acuerdo con el modelo incluido en el Anexo III.* |
| Lizitaziorako onetsi den aurrekontua baino handiagoak diren proposamenak baztertu eginen dira. Gehienez ere, bi dezimal erabiliko dira. Eskaintzan biltzen diren kopuruei dagokienez, letraz idatzitako kopuruak lehenetsiko dira eta ez zifratan idatzitakoak. | *No serán admitidas aquellas proposiciones cuyo importe sea superior al presupuesto de licitación aprobado. Se utilizarán como máximo dos decimales. Respecto de las cantidades recogidas en la oferta prevalecerán las cantidades expresadas en letra respecto de las expresadas en cifras.* |
| Proposamena lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatu beharko du. Batera parte hartzen duten lizitatzaileen kasuan, parte-hartzaile guzi-guziek sinatuko dute edo beren ordezkariek. | *La proposición deberá estar firmada por el licitador o persona que lo represente. En el caso de licitadores en participación conjunta irá firmada por todos y cada uno de sus componentes o por su representante.* |
| **11.- OHI BAINO MERKEAGOA DEN ESKAINTZA.** | ***11. OFERTA ANORMALMENTE BAJA.*** |
| Kasu horretan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak ezarritakoari segituko zaio. | *En este caso se estará a lo dispuesto en el artículo 98 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril de Contratos Públicos.* |
| Edozein moduz, eskaintzak ere baztertuko | *En todo caso, se rechazarán las ofertas* |

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| dira egiaztatzen bada ohi baino merkeagoak direla azpikontratazioaren araudia urratzeagatik edo ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko betebehar nazional edo nazioartekoak ez betetzeagatik, indarrean dauden hitzarmen sektorialak ez betetzea barne hartuta. | *que se comprueben que son anormalmente bajas por vulneración de la normativa sobre subcontratación o no cumplen las obligaciones en materia medioambiental, social, laboral, nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenios colectivos sectoriales vigentes.* |
| **12.- KONTRATAZIO-MAHAIA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.** | ***12.- MESA DE CONTRATACIÓN Y APERTURA DE LAS PROPOSICIONES.*** |
| Kontratazio-mahaiak irekiko ditu propo samenak eta beteko ditu Legeak ezarritako gainerako funtzioak, eta honako pertsona hauek osatuko dute: | *La Mesa de Contratación, que realizará la apertura de las proposiciones y las demás funciones encomendadas por la Ley, estará constituida por las siguientes personas:* |
| Lehendakaria: Ladis Satrustegui Alzugaray, Lesakako Udaleko Alkatea berak eskuordentzen duen kidea. | *Presidente: Ladis Satrustegui Alzugaray, Alcalde del Ayuntamiento de Lesaka, o miembro en quien delegue.* |
| Mahaikideak: | *Vocales:* |
| - 1. mahaikidea: Eneko Fernández Maritxala, Lesakako Udaleko zinegotzia edo hark eskuordetutako kidea. | *-1º Vocal: Eneko Fernández Maritxala, concejal del Ayuntamiento de Lesaka o miembro en quien delegue.* |
| - 2. mahaikidea: Iñigo Urdangarín Zurutuza, Lesakako Udaleko kontu-hartzailea edo hark eskuordetutako kidea. | *-2º Vocal: Iñigo Urdangarín Zurutuza, Interventor del Ayuntamiento de Lesaka o miembro en quien delegue.* |
| -3. mahaikidea: Belén Mutuberria Vergara, Lesakako Udaleko turismo eta kultur dinamizatzailea edo hark eskuordetutako kidea. | *-3º Vocal: Belén Mutuberria Vergara, dinamizadora turística-cultural del Ayuntamiento de Lesaka o miembro en quien delegue.* |
| -4. mahaikidea: Lesakako Irain ikastetxeko musika-irakaslea edo hark eskuordetutako kidea. | *-4º Vocal: profesora de música del Colegio Irain de Lesaka o miembro en quien delegue.* |
| Idazkaria: Udal-idazkaria. | *Secretaria: la de la Corporación.* |

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| Kontratazio-mahaiak, ekitaldi pribatuan, lizitatzaileek 1. Zenbakia duen gutun-azalean behar den denboran eta moduan aurkeztutako administrazio-agiriak kalifikatuko ditu, egiaztatzeko onartuak izateko baldintzak betetzen dituztela. | *La Mesa de Contratación, en acto privado, calificará previamente la documentación administrativa presentada en tiempo y forma por los licitadores en el sobre n° 1, con el fin de comprobar que reúnen las condiciones para ser admitidos.* |
| Mahaiak, gutxienez, 5 egun naturaleko epea emanen du akatsak moldatzeko edo dokumentazioa osatzeko. Akatsak moldatzeko epea pasatutakoan, eskatutako informazioa osatu edo moldatu ez bada, lizitatzailea prozeduratik kanpo geldituko da, eta idatziz jasoko da kanporatzea. | *La Mesa podrá conceder un plazo no inferior a cinco días naturales para subsanar los defectos o completar dicha documentación. Si transcurre el plazo de subsanación no se ha completado o subsanada la información requerida, se procederá a su exclusión en el procedimiento, dejando constancia documental de esta circunstancia.* |
| Administrazio-agiriak kalifikatutakoan, Kontratazio-mahaiak onartutako enpresen 2. Zenbakia duen gutun-azala irekiko du (“Formulen bidez kuantifikagarriak ez diren irizpideekin lotutako dokumentazioa”) eta dokumentazioa balioetsiko du esleipen-irizpideen arabera, aipatutako irizpideen bidez behar bezala neurtuta. | *Calificada la documentación administrativa, la Mesa de Contratación procederá a la apertura del Sobre n° 2, "Documentación relativa a criterios no cuantificables mediante fórmulas”, de las empresas admitidas y a su valoración conforme a los criterios de adjudicación debidamente ponderados según los criterios que se señalan.* |
| Kontratazio-mahaiak 3. Kartazala ireki du ondoren,<br>Kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena jasoko duen lizitatzaileari horren berri emanen dio. | *Tras ello, la Mesa de Contratación procederá a la apertura del sobre nº 3.*<br>*La Mesa de Contratación dará comunicación al licitador a favor del cual recaiga la propuesta de adjudicación.* |
| **13.- ESLEIPEN-IRIZPIDEAK.** | ***13.- CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN.*** |
| Esleipenduna hautatzeko, honela balioetsiko dira proposamenak: | *Para la selección del adjudicatario se valorarán las proposiciones de la siguiente forma:* |

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| **1. PROPOSAMEN TEKNIKOA (**irakaskuntza-kudeaketarako proiektua): gehienez ere 45 puntu. | ***1. PROPUESTA TECNICA*** *(proyecto de gestión educativa): hasta 45 puntos.* |
| Balioespena eskaintzetan ageri diren proposamenetako azterketa- eta kalitate-mailaren arabera eginen da, atal bakoitzari buruz, honela banatuta: | *La valoración se realizará según el grado de estudio y calidad de las soluciones propuestas que se observen en las ofertas sobre los distintos apartados desglosados del siguiente modo:* |
| A.-IRAKASKUNTZA PROIEKTUA: GEHIENEZ ERE 10 PUNTU | *A.- PROYECTO EDUCATIVO: HASTA 10 PUNTOS* |
| A.1.Aplikagarria den araudia: 2,5 puntu. | *A.1.Normativa Aplicable: 2,5 puntos.* |
| A.2.Nortasun- adierazleak: 2,5 puntu. | *A.2.Señas de identidad: 2,5 puntos.* |
| A.3.Ikastetxearen helburu nagusiak: 2,5 puntu. | *A.3.Objetos generales del centro: 2,5 puntos.* |
| A.4. Eskola-antolamendua: 2,5 puntu. | *A.4.Organización escolar: 2,5 puntos.* |
| B. PROPOSAMEN PEDAGOGIKOA: GEHIENEZ ERE 30 PUNTU | *B. PROPUESTA PEDAGÓGICA: HASTA 25 PUNTOS* |
| B.1 Sarrera: Gehienez ere 5 puntu. | *B.1.Introducción: Hasta 5 puntos.* |
| B.2 Helburuak: Gehienez ere 5 puntu. | *B.2. Objetivos: Hasta 5 puntos.* |
| B.3 Edukiak: Gehienez ere 5 puntu. | *B.3 Contenidos: Hasta 5 puntos.* |
| B.4 Oinarri pedagogiko eta metodologikoak:Gehienez ere 2,5 puntu. | *B.4 Principios pedagógicos y metodológicos: Hasta 2,5 puntos.* |
| B.5 Ebaluazioa:Gehienez ere 2,5 puntu. | *B.5. La Evaluación: Hasta 2,5 puntos.* |
| B.6 Aniztasunerako hezkuntza:Gehienez ere 2,5 puntu. | *B.6 Educación para la diversidad: Hasta 2,5 puntos.* |
| B.7 Familiekiko elkarlana:Gehienez ere 2,5 puntu. | *B.7 Colaboración con las familias: Hasta 2,5 puntos.* |
| C. KUDEAKETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBORAKO PROIEKTUA:GEHIENEZ ERE 10 PUNTU | *C. PROYECTO DE GESTION ECONOMICO ADMINISTRATIVA: HASTA 10 PUNTOS* |
| C.1 Baliabide ekonomikoen planifikazioa: Gehienez ere 3 puntu. | *C.1. Planificación de los recursos económicos: Hasta 3 puntos.* |
| C.2 Langileen planifikazioa: Gehienez ere 4 puntu. | *C.2. Planificación de la provisión de personal: Hasta 4 puntos.* |
| C.3 Materialen, zerbitzuen eta horniduren kudeaketa:Gehienez ere 3 puntu. | *C.3. Gestión de materiales, servicios y suministros:Hasta 3 puntos* |

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| **2- IRIZPIDE SOZIALAK:** Gehienez ere 5 puntu.<br>- Gehienez ere 3 puntu emanen zaizkio lizitatzaileei, baldin eta konpromisoa hartzen badute kontratuaren esleipen-prezioaren ehuneko bat Gizarteratze eta Laneratze Zentroetan edo Enplegu Zentro Berezietan azpikontrazioa egiteko. Lizitatzaileei 1 puntu emanen zaizkie, baldin eta, gutxienez, esleipen-prezioaren ehuneko 5eko azpikontratazioa eskaintzen badu; 2 puntu, gutxienez esleipen-prezioaren ehuneko 10eko azpikontratazioa eskaintzen badu; eta 5 puntu, gutxienez esleipen-prezioaren ehuneko 15eko azpikontratazioa eskaintzen badu.<br>- Gehienez ere 2 puntu emanen dira parte hartzen duten enpresek konpromisoa hartzen badute gutxienez 8 orduz kontratua beteko duten langileak sentsibilizatzeko eta prestatzeko ekintzak egiteko, berdintasun eta kontziliazioaren arloko eskubideei buruz (indarrean dagoen araudian eta dagokion hitzarmenean onartuak). Balioespena honako hauen araberakoa izanen da: ekintzan emandako ordu-kopurua, edukia, programazioa, eta hori gidatuko duten langileak. | ***2.- CRITERIOS SOCIALES:*** *Hasta 5 puntos.*<br>*- Se valorará con hasta 3 puntos a los licitadores que se comprometan a subcontratar un porcentaje del precio de adjudicación del contrato a través de Centros de Inserción Sociolaboral y/o Centros Especiales de Empleo. Se asignarán 1 puntos al licitante que ofrezca la subcontratación en, al menos, un 5 por 100 del precio de adjudicación; 2 puntos al licitante que ofrezca subcontratación por, al menos, un 10 por 100 del precio de adjudicación; y 5 puntos al licitante que ofrezca subcontratar, al menos, un 15 por 100 del precio de adjudicación.*<br>*- Se valorará con hasta 2 puntos la incorporación por parte de las empresas concurrentes del compromiso de realización de al menos 8,00 horas de acciones de sensibilización y formación a la plantilla que ejecutará el contrato acerca de los derechos en materia de igualdad y de conciliación reconocidos en la normativa vigente y convenio correspondiente. La valoración se efectuará en función del número de horas dedicadas a la acción, contenido, programación y personal dedicado a la impartición.* |
| **3.- ESKAINTZA EKONOMIKOA**: gehienez ere 50 puntu.<br><br>Eskaintza ekonomikoen balioespena ondotik adierazten den formula aplikatuz eginen da. Gehienez ere, bi dezimal erabiliko dira.<br>Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak kalkulatzeko, honako baremo hau aplikatuko da.<br>* Lizitatzailerik merkeena: 50 puntu (A | ***3.- OFERTA ECONOMICA:*** *hasta 50 puntos.*<br><br>*La valoración de las ofertas económicas se realizará aplicando la fórmula que se indica. Se utilizarán como máximo dos decimales.*<br>*Para el cálculo de los puntos correspondientes a la oferta económica, se aplica el siguiente baremo.*<br>** Licitador más económico: 50 puntos* |

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| baxua).<br>* Gainerako lizitatzaileak: 50 x (A baxua: B eskaintza). | *(baja A).*<br>** Demás licitadores: 50 x (baja A: oferta B).* |
| **14.- BERDINKETA DESEGITEKO IRIZPIDEAK.** | ***14.- CRITERIOS DE DESEMPATE.*** |
| Bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, honako irizpide hauek erabiliko dira berdinketa desegiteko:<br>a) Genero berdintasunaren arloan jardunbide onak egin izana frogatzea.<br><br>b) %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten langile finkoen ehuneko handiena, betiere enpresa edo profesionalak bere plantillan langileen ehuneko 2 baino gehiagoko portzentajea badu desgaitasun batekin, kaudimena frogatzeko unean.<br><br>c) Laneratze enpresaren izaera izatea, Laneratze enpresen araubidea arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legearekin edo une horretan indarra duen araudiarekin bat.<br><br>d) Behin-behineko langileen portzentaje txikiena izatea, betiere %10 baino gehiagokoa ez bada.<br>e) Irabazi-asmorik gabeko erakundea izatea, nortasun juridikoa duena, izaera soziala edo asistentziala duten prestazioei dagozkien kontratuetan.<br>f) Bidezko merkataritzako erakundea dela aitortua izatea, kontratuaren xedea bidezko merkataritzaren alternatiba duten produktuak direnean<br>Berdinketak bere horretan jarraitzen badu aitzineko irizpideak aplikatu eta gero, zozketa | *Si se produce empate entre dos o más ofertas se aplicarán los siguientes criterios de desempate:*<br>*a) La acreditación de la realización de buenas prácticas en materia de igualdad de género.*<br>*b) El mayor porcentaje de trabajadores fijos con discapacidad igual o superior al 33%, siempre que la empresa o profesional tenga en plantilla un porcentaje superior al 2% de trabajadores con discapacidad, en el momento de la acreditación de su solvencia.*<br>*c) La consideración de empresa de inserción, de acuerdo con la Ley 44/2007, de 13 de diciembre, para la regulación del régimen de las empresas de inserción o la normativa vigente en dicho momento.*<br>*d) El menor porcentaje de trabajadores eventuales, siempre que éste no sea superior al 10%.*<br>*e) El carácter de entidad sin ánimo de lucro, con personalidad jurídica, en los contratos relativos a prestaciones de carácter social o asistencial.*<br>*f) El reconocimiento como organización de comercio justo en los contratos que tengan como objeto productos en los que exista alternativa de comercio justo.*<br>*Si persiste el empate tras la aplicación de los criterios anteriores éste se resolverá por* |

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| bidez ebatziko da.<br>Berdinketa desegiteko irizpideak aplikatzeko, 5 egun naturaleko epean dagokion dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaie ukitutako enpresa lizitatzaileei. | *sorteo.*<br>*Para la aplicación de los criterios de desempate se requerirá a las empresas licitadoras afectadas para que en el plazo de cinco días naturales presente la documentación pertinente.* |
| **15.- ESLEIPENDUNAREN GAITASUNA ETA KAUDIMENA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.** | ***15.- APORTACION DE LA DOCUMENTACION PARA ACREDITAR LA CAPACIDAD Y LA SOLVENCIA POR EL ADJUDICATARIO.*** |
| Kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena jakinarazi zuenetik gehienez ere 5 egun naturaleko epean, lizitatzaileak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu: | *En el plazo máximo de 7 días naturales desde la comunicación por parte de la Mesa de Contratación de la propuesta de adjudicación, el licitador presentará la siguiente documentación:* |
| **1**.Lizitatzailearen nortasuna eta, hala badagokio, proposamenaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzeko dokumentua edo dokumentuak:<br>1.1.- Lizitatzailea pertsona fisikoa edo enpresaburu indibidual bada, Nortasun Agiri Nazionala (edo araudiaren arabera agiri hori ordezkatzen duena) aurkeztu beharko du.<br>1.2.- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, sortze- edo osatze-akta, egun indarrean dauden estatutuak eta, hala badagokio, Erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko ditu. | ***1**.Documento o documentos que acrediten la personalidad del licitador y la representación, en su caso, del firmante de la proposición, consistentes en:*<br>*1.1.- Documento Nacional de Identidad (o documento que lo sustituya reglamentariamente) en el caso de personas físicas o empresarios individuales.*<br>*1.2.- Si el licitador es persona jurídica, deberá presentar el acta fundacional o constitutiva, sus estatutos vigentes actualmente y, en su caso, la inscripción en el Registro correspondiente.* |
| Bertze pertsona batzuen izenean aurkezten direnek edo sinatzen dutenek notario-ahalorde bat aurkeztu beharko dute, non adieraziko baita dagokion erregistroan inskribatuta dagoela, baldin eta aitzineko paragrafoan aipatutako eskrituran agertzen ez bada, baita ahaldunaren Nortasun | *Quienes comparezcan o firmen proposiciones en nombre de otra persona, poder notarial bastante que deberá figurar inscrito en el registro correspondiente, si tales extremos no constan en la escritura referida en el párrafo anterior, así como el Documento* |

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| Agiri Nazionala edo araudiaren arabera hori ordezkatzen duen dokumentua ere. | *Nacional de Identidad o documento que reglamentariamente lo sustituya de la persona apoderada.* |
| 1.3.- Eskaintza bateratuta aurkezten duten lizitatzaileak badira, horietako bakoitzak bere nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko ditu; dokumentu pribatu batean, sinatzen duten enpresaburuen izenak eta egoerak, eta bakoitzaren parte-hartzea adierazi beharko dituzte, eta Administrazioaren aitzinean guzien ordezkapen osoa izanen duen pertsona edo erakundea izendatu. Dokumentu hori elkartutako lizitatzaileetako bakoitzak sinatu beharko du edo bakoitzaren ordezkariak. | *1.3.- Cuando la oferta se presente por licitadores que participen conjuntamente, cada uno de ellos acreditará su personalidad y capacidad de obrar, debiendo indicar en documento privado los nombres y circunstancias de los empresarios que la suscriben, la participación de cada uno de ellos y designar la persona o entidad que durante la vigencia del contrato ha de ostentar la plena representación de todos ellos frente a la Administración. El citado documento deberá estar firmado por cada uno de los licitadores agrupados o por sus respectivos representantes.* |
| Erantzukizuna beti izanen da solidarioa, eta kontratutik sortzen diren betebeharren multzoa banaezina izanen da. | *La responsabilidad será siempre solidaria, e indivisible el conjunto de obligaciones dimanantes del contrato.* |
| **2.**Erakundearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia. Elkarrekin parte hartzen duten enpresaburuak aurkezten badira, elkartutako erakunde bakoitzak berea aurkeztu beharko du. | ***2.**Número de Identificación Fiscal de la entidad. Si la oferta se presenta por empresarios que participen conjuntamente, el N.I.F. será aportado por cada una de las entidades reunidas.* |
| **3.**Baldintza-agiri honetan eskatutako gaitasun ekonomiko eta finantzarioa, eta tekniko eta profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa. | ***3.** Documentación acreditativa de la solvencia económica y financiera así como técnica y profesional en los términos exigidos en el presente pliego.* |
| **4.** Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, non adieraziko baita indarreko legeek ezartzen dituzten segurtasunaren, lan-osasunaren | ***4.** Declaración responsable del licitador en la que haga constar que se halla al corriente del cumplimiento de las* |

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| eta lan-arriskuen prebentzioaren arloko obligazioak betetzen dituela gaur egun.<br>Aldi baterako helburu horrekin aurkezten diren enpresaburuen elkarteek edo elkarrekin parte hartzen duten lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzak badira, elkarte horretako kide bakoitzak aurkeztu beharko du aipatutako adierazpen hori. | *obligaciones de seguridad, salud en el trabajo y prevención de riesgos laborales impuestas por las disposiciones vigentes.En el caso de ofertas presentadas por uniones de empresarios que se constituyan temporalmente al efecto o por licitadores que participen conjuntamente, cada uno de los integrantes de la agrupación deberá presentar la declaración señalada.* |
| **5.** Ogasunek (Nafarroako Ogasuna eta/edo Estatuko Ogasuna eta/edo Foru Ogasunak) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako ziurtagiri positiboak, non adierazten baita lizitatzaileak zerga-betebeharren ordainketak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituela. Ziurtagiri horiek, gehienez ere, proposamenak aurkezteko epea iraungi baino 6 hilabete lehenago eginak izan behar dute. | ***5.*** *Certificados positivos expedidos por las Haciendas que correspondan (Hacienda Foral de Navarra y/o Hacienda Estatal y/o Haciendas Forales) y por la Tesorería General de la Seguridad Social acreditativos, respectivamente, de que el licitador se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. Dichos certificados deberán estar expedidos con una antelación no superior a seis meses desde la fecha de expiración del plazo de presentación de proposiciones.* |
| Aldi baterako helburu horrekin aurkezten diren enpresaburuen elkarteek edo elkarrekin parte hartzen duten lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzak badira, elkarte horretako kide bakoitzak aurkeztu beharko ditu aipatutako egiaztagiri horiek. | *En el caso de ofertas presentadas por uniones de empresarios que se constituyan temporalmente al efecto o por licitadores que participen conjuntamente, cada uno de los integrantes de la agrupación deberá presentar los certificados señalados.* |
| **6**. Lizitatzaileak Enplegu Zentro Berezietan edo Gizarteratze Zentroetan kontratatu nahi baditu kontratuaren helburu diren zerbitzuetako batzuk, azpikontratatutakoen zerrenda zehatza aurkeztu beharko du, baita jatorrizko dokumentu bat ere, non adieraziko baita konpromiso formal bat dagoela enpresa horiekin | ***6.*** *Si el licitador pretende subcontratar con Centros Especiales de Empleo o Centros de Inserción Social parte de las prestaciones objeto del contrato, deberá aportar una relación exhaustiva de los subcontratistas y un documento original que demuestre la existencia de un* |

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| eta kontratuaren zer zati azpikontratatu behar den enpresa bakoitzarekin. | *compromiso formal con tales empresas especificando la parte del contrato que va a ser objeto de subcontratación con cada empresa.* |
| **7.** Jarduera Ekonomikoen Zergan izena emana izatearen ziurtagiria, eta, Lesakatik kanpoko helbidea dutenentzat, zerga hori ordaindua izatearena. Lizitatzaileak Lesakan badu helbidea, ofizioz egiaztatuko da betebehar hori betetzen ote den. | ***7.****Certificado de estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas y al corriente del mismo para licitadores domiciliados fuera de Lesaka. Si la licitadora se halla domiciliada en el Ayuntamiento de Lesaka, la comprobación de este cumplimiento se realizará de oficio.* |
| Epe horretan dokumentazioa aurkezten ez bada, lizitatzailea prozeduratik kanpo geldituko da, eta kontratuaren prezioaren % 5aren baliokidea den zigorra ordaindu beharko du, baita ehuneko hori gainditzen duen guziaren kalte-galeren ordainketa osagarria ere. | *La falta de aportación de la documentación necesaria en dicho plazo supondrá la exclusión del licitador del procedimiento, con el abono por parte de éste de una penalidad equivalente al 5% del importe estimado del contrato e indemnización complementaria de daños y perjuicios en todo lo que exceda dicho porcentaje.* |
| **16.- ESLEIPEN-PROPOSAMENA.** | ***16.- PROPUESTA DE ADJUDICACIÓN.*** |
| Kontratazio-mahaiak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, esleipen-proposamena eginen dio kontratazio-organoari. Proposamenak onargarria den proposamen bat egin duten pertsonen lehentasun-ordena adieraziko du, esleipen-irizpideak aplikatuz lortu duten puntuazioarekin batera. | *La Mesa de Contratación una vez que haya comprobado que la documentación presentada, efectuará la propuesta de adjudicación al órgano de contratación. La propuesta señalará el orden de prelación de las personas que hayan formulado una propuesta admisible, con las puntuaciones obtenidas en aplicación de los criterios de adjudicación.* |
| Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko esleipen-kontratuaren | *La propuesta de adjudicación no generará derecho alguno mientras no se* |

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| ebazpena onartzen ez den arte. | *apruebe la resolución de la adjudicación del contrato.* |
| **17.- ESLEIPENA.** | ***17.- ADJUDICACIÓN.*** |
| 1.- Esleipena.- Kontratazio-organoak kontratua esleitzeko ebazpena emanen du hilabeteko epean, formulekin kuantifikagarria den eskaintza jende aitzinean irekitzen den egunetik kontatzen hasita. Ebazpen hori arrazoitua izanen da, eta gutxienez azalduko du zergatik ukatu diren eskaintzak eta bakoitzaren ezaugarriak eta abantailak. | *1.- Adjudicación. El órgano de contratación dictará resolución adjudicando el contrato en el plazo máximo de un mes a contar desde la apertura pública de la oferta cuantificable con fórmulas. Dicha resolución será motivada y contendrá al menos las razones por las que se han rechazado las ofertas, las características y ventajas de la oferta seleccionada.* |
| 2.- Kontratua burutzea.- Kontratua esleitzean, burutu eginen da. Esleipen-ekintzaren eraginkortasuna bertan behera geldituko da 10 egun naturalez, esleipena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita. Esleipen-ekintza bertan behera geldituko da kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat jarriz gero, erreklamazio hori ebatzi arte. | *2.- Perfección del contrato.- La perfección del contrato tendrá lugar con la adjudicación del contrato. La eficacia del acto de adjudicación quedará suspendida durante el plazo de 10 días naturales contados desde la fecha de remisión de la notificación de la adjudicación. El acto de adjudicación quedará suspendido por la mera interposición de una reclamación en materia de contratación pública hasta el momento en que se resuelva dicha reclamación.* |
| 3.- Esleitu gabe uztea.- Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 101.5 artikuluak ezarritakoari jarraituz, kontratazio-organoak, modu arrazoituan, esleitu gabe uzten ahal du prozedura. | *3.- Declaración de desierto.- De conformidad con lo establecido en el artículo 101.5 de la Ley Foral 2/2018, de Contratos Públicos, el órgano de contratación podrá de forma motivada declarar desierta el procedimiento de adjudicación.* |
| 4.- Esleipenaren jakinarazpena eta publizitatea.- Adostu eta gero, lizitazioko parte-hartzaileei esleipenaren berri emanen zaie, eta | *4.- Notificación y publicidad de la adjudicación.- La adjudicación, una vez acordada, será notificada a las participantes en* |

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko da Foru Legearen 102. artikuluan ezarritakoari jarraituz. | *la licitación y se publicará en el Portal de Contratación de Navarra de conformidad con lo establecido en el artículo 102 de la Ley Foral.* |
| **18.- BERMEAK.** | ***18.- GARANTIAS.*** |
| Kontratua formalizatu baino lehen, esleipendunak esleipenaren zenbatekoaren %4 utziko du gordailuan Udalaren alde. | *Con carácter previo a la formalización del contrato, el adjudicatario, depositará a favor del Ayuntamiento el 4% del importe de adjudicación.* |
| Bermea kontratugilearen eginkizunak betetzeari atxikita geldituko da, kontratua bukatu arte.<br>Halaber, berme hori konfiskatu ahal izanen da, baldin eta kontratua bertan behera uzten bada kontratugileak hura ez betetzeagatik, egiaztatu diren kalte-ordainak estaltzeko behar den kopuruan. | *La garantía quedará afecta al cumplimiento de las obligaciones del contratista hasta la finalización del contrato.*<br>*Asimismo, dicha garantía podrá ser objeto de incautación en los casos de resolución del contrato por incumplimiento culpable del contratista, en la cuantía necesaria para cubrir los daños y perjuicios que se hayan acreditado.* |
| Bermea Kontratu Publikoen Foru Legearen 70.3 artikuluak ezartzen dituen moduetan osatu ahal izanen da. | *La garantía se podrá constituir en cualquiera de las formas previstas en el artículo 70.3 de la Ley Foral de Contratos Públicos.* |
| **19.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.**<br>Kontratua administrazio-agirietan formalizatuko da, gehienez ere 15 egun naturaleko epean esleipena bertan behera uztearen epearen bukaeratik kontatzen hasita. | ***19.- FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO.***<br>*El contrato se formalizará en documentación administrativa, en el plazo máximo de 15 días naturales contados desde la finalización del plazo de suspensión de la adjudicación.* |
| Horren aitzinetik, esleipendunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu, gehienez | *Con carácter previo, el adjudicatario, deberá entregar los siguientes documentos en* |

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| ere hamabortz egun naturaleko epean esleipena jakinarazi den egunetik. | *el plazo máximo de quince días naturales desde la notificación de la adjudicación:* |
| - Kontratutik eratortzen diren betebeharrak betetzeko bermea Udalaren alde gordailutu izanaren egiaztagiria. | *-Justificante de haber consignado a favor del Ayuntamiento la garantía para el cumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato.* |
| - Sexu-gaizkileen Erregistro Nagusiaren Ziurtagiria, egiaztatzen duena taldekide bakar batek ere ez duela aitzinkaririk (taldean bertze kide batzuk sartuz gero, dokumentu hori ere aurkeztu beharko dute). | *-Certificado del Registro Central de Delincuentes Sexuales, que acredite la falta de antecedentes de todos los miembros del equipo (en el caso de que se produzca la incorporación de nuevos miembros al mismo, deberán aportar igualmente este documento).* |
| -Aldi baterako enpresa-elkartea sortuz gero, kontratua iraungi arteko iraupena duten sortze-eskriturak eta elkarte horren IFK. | *-En el caso de unión temporal de empresas, las escrituras de constitución de la misma cuya duración será coincidente con la del contrato hasta su extinción y CIF de dicha unión.* |
| Kontratugileari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik kontratu formalizatzen ez bada, kontratazio-organoak kontratua bertan behera uztea erabakitzen ahal du, interesdunak erran beharrekoa aditu eta gero; kontratugileak kontratuaren zenbatekoaren % 5aren baliokidea den zigorra ordaindu beharko du eta ehuneko hori gainditzen duen guziaren kalte-galeren ordainketa osagarria; bertzela, Udalak luzaezina den bertze epe bat ematen ahal dio. | *Si el contrato no se formalizase en plazo por causas imputables al contratista, el órgano de contratación podrá optar por resolver el contrato, previa audiencia del interesado, con abono por parte de éste de una penalidad equivalente al 5% del importe estimado del contrato e indemnización complementaria de daños y perjuicios en todo lo que exceda dicho porcentaje, o bien conceder un nuevo plazo improrrogable.* |
| **20.- PREZIOA ORDAINTZEA ETA FAKTURAK EGITEA.** | ***20.- PAGO DEL PRECIO Y EXPEDICIÓN DE FACTURAS.*** |
| Kontratugileak emandako zerbitzuak kobratzeko eskubidea izanen du, Kontratu | *El contratista tendrá derecho al abono de la prestación realizada en los términos* |

Lesaka
ZUBIAK ERAIKIZ

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 152. artikuluan, hurrengoetan eta bat datozenetan eta Agiri honetan ezarritakoaren arabera. | *establecidos en los artículos 152 y siguientes y concordantes de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos y en el presente Pliego.* |
| Esleipenaren xede den guztizko zenbatekoa hilero ordainduko da, dagokion faktura aurkeztu ondoren. Faktura bakoitzean, dagokion hileko irakasleen eskola-orduak eta eskola-orduetatik kanpokoak zehaztu beharko dira. | *El pago de la cantidad total objeto de adjudicación, se realizará mensualmente previa presentación de la correspondiente factura. En cada factura deberá especificarse las horas lectivas y no lectivas de los profesores del correspondiente mes.* |
| **21.- KOORDINAZIOA UDALAREKIN.** | ***21. - COORDINACIÓN CON EL AYUNTAMIENTO.*** |
| Udalaren Musika Eskolako Kontseilu Sektorialaren bitartez eginen da. Haren estatutuak Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 16. alean argitaratu dira, 2005eko otsailaren 7an. | *Se realizará mediante el Consejo Sectorial de la Escuela Municipal de Música, cuyos Estatutos han sido publicados en el Boletín Oficial de Navarra nº 16, de 7 de febrero de 2005.* |
| **22.- KONTRATUA GAUZATZEA.** | ***22.- EJECUCIÓN DEL CONTRATO.*** |
| 22.1.- Kontratua kontratazio-agiri honetan ezartzen denaren arabera gauzatuko da. | *22.1.- La ejecución de este contrato se realizará con sujeción a lo dispuesto en este pliego de contratación.* |
| 22.2.- Erakunde esleipendunak kontratu hau gauzatzeko erabiltzen dituen langileek ez dute inolako lan-harremanik eskuratuko Udalarekin, kontratua esleipendurari bakarrik baitagokio. | *22.2.- El personal que utilice la entidad adjudicataria en la ejecución del presente contrato no adquirirá relación laboral alguna con el Ayuntamiento por entenderse que el mismo depende única y exclusivamente de la adjudicataria.* |
| Beraz, erakunde esleipendunak bete beharko ditu bere langileekiko betebeharrak, lan-arloan, Gizarte Segurantzan eta Lan-arriskuen Prebentzioan. Esleipendunak betebehar horiek | *En consecuencia, la entidad adjudicataria deberá cumplir en relación con su personal las obligaciones en materia Laboral, de Seguridad Social y de Prevención* |

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| betetzen ez baditu, edo hark izendatutako langile teknikoek segurtasunaren arloko xedapenak urratzen badituzte, Udalak ez du horretan inolako erantzukizunik izanen. | *de Riesgos Laborales. El incumplimiento de estas obligaciones por parte de la adjudicataria, o la infracción de las disposiciones sobre seguridad por parte del personal técnico por ella designado, no implicarán responsabilidad alguna para el Ayuntamiento.* |
| **23.- GAUZATZE-BALDINTZA BEREZIAK.** | ***23 - CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN.*** |
| Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 66. artikuluak ezarritakoa aintzat hartuta, honako hauek joko dira espezifikoki gizarte-izaerako baldintzatzat: Kontratua honako hauek betetzearen mende egonen da: indarrean dauden arauzko lege-xedapen konbentzionalak, lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta lan-segurtasunaren eta -osasunaren arloan; eta, bereziki, azken hitzarmen kolektibo sektorialak (enpresa kontratugilearen jarduerari dagokion sektoreko eremu baxuenekoa) ezarritako baldintzak. | *Al amparo de lo dispuesto en el artículo 66 de la Ley Foral 2/2018 de Contratos Públicos, se establecen como condiciones de carácter específicamente social las siguientes:El contrato se halla sujeto al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarias y convencionales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo y, en particular, a las condiciones establecidas por el último convenio colectivo sectorial del ámbito más inferior existente en el sector en el que se encuadre la actividad de la empresa contratista.* |
| Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Arlo horretan, honako baldintza hauek bete beharko dira: | *Igualdad entre mujeres y hombres. En esta materia deberán guardarse las siguientes condiciones:* |
| - Enpresa kontratugileak 250 langile baino gehiago baditu, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan (Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako) xedatutako Berdintasun Planaren diseinua eta aplikazio eragingarria egiaztatu beharko ditu.<br>- Kontratua gauzatzean sortzen den | *- Si la empresa contratista cuenta con más de 250 personas trabajadoras deberá acreditar el diseño y aplicación efectiva del Plan de Igualdad previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.*<br>*- En toda la documentación, publicidad,* |

Plaza Zaharra 1
31770 Lesaka, Nafarroa
CIF P3115200B
948 637 005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

| | |
|---|---|
| edozein dokumentazio, publizitate, irudi edo materialetan, enpresa edo erakunde esleipendunak hizkera ez-sexista erabili beharko du, emakumeen edozein diskriminazio-irudi edo estereotipo sexista saihestu, eta berdintasun-balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta pluraltasuna erakusten dituen irudia sustatu genero-rol eta -identitateetan. | *imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, la empresa o entidad adjudicataria deberá emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.* |
